

KOSTUEN EGITURA

Kostuen egitura proiektu edo enpresa batek funtzionatu ahal izateko dituen gastu nagusien multzoa da. KOBILANen kasuan, gastu horiek arduraz eta modu zuhurrean aurreikusi behar dira, proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko. Hasierako inbertsio handia behar izanez gero, inbertsio horien guztizko kostua ere zenbatetsi behar da.

Kostu finkoak

Salmenta-maila aldatzen ez duten gastuak dira, eta epe luzerako planifikazioan kontuan hartzen dira. Adibideak: lokal komertzialaren alokairua, langileen soldata finkoak, aseguruak, lizentziak eta ekipamenduen amortizazioa (ordenagailuak, grabazio-ekipoa, softwareak...).

Kostu aldakorak

Jarduera-mailaren arabera aldatzen diren gastuak. Adibideak: material fisikoak (inprimaketak, piktogramak), bidalketak eta desplazamenduak (0,26 €/km), orduetako zerbitzu pertsonalizatuak eta baliabide puntualak.

Eskala-ekonomiak eta irismen-ekonomiak

Zenbat eta gehiago ekoitzi edo zerbitzu gehiago eskaini, orduan eta merkeago ateratzen da unitate bakoitza. Baliabide berberekin hainbat zerbitzu eskaintzeak kostuak optimizatzen ditu; adibidez, lokal eta webgune bera erabiliz zerbitzu presentzial eta onlineak eskaintzea.

Kalitate eta balio erantsian oinarritutako kostuak

KOBILANen modeloak kalitatea eta balio erantsia du ardatz: egokitzapen profesionalak, pertsonalizazioa eta irisgarritasuna bermatzen duten jarduerak dira nagusi, nahiz eta horrek kostu handiagoak ekarri.

Kostu hauek modu zehatz eta koherentean aurreikusteak enpresari aukera ematen dio bere diru-sarrerak planifikatzeko eta negozioaren funtzionamendu etengabea bermatzeko.

BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.

-STARTINNOVA plataformako material.

-<http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>